# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola #4k

Arabako Foru Aldundia – 11. gela - La Blanca eraikina (Vitoria-Gasteiz)
Ordua: 17:30 - 19:15

## Akta - Ondorioak

# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola #4k

Arabako Foru Aldundia – 11. gela - La Blanca eraikina (Vitoria-Gasteiz)
Ordua: 17:30 - 19:15

Honako gai hauek jorratuko ditugu

1. *Aurkezpena*

2. *Oharrak, joan den uztailean kideei bidalitako ebaluazio galdetegian oinarrituta*

3. *Hiru pilotoen egoerari buruz (Bilboko Udala, Añanako Kuadrilla eta Tolosako Udala)*

4. *Pilotuen oztopo, aukera eta erronkak oinarri hartuta, eraikitze partekatuaren prozesua eta hobekuntza proposamenak* (45´)

5. *Konpromiso honetan aurreikusitako ekintzak epe motz eta ertainera*

6. Bestelakoak

# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola #4k

Open Government Partnership Euskadi

OGPEuskadi konpromiso#4 open eskola escuela ciudadanía

## 1. *Aurkezpena*

### Parte-hartzaileen zerrenda

| | | | |
|---|---|---|---|
| Gotzon Bernaola | José María Armentia | Aitzol Batiz | Marta Pastor |
| Joseba Ormazabal | Garikoitz Lekuona | Beatriz Acha | Garbiñe Garamendi |
| Borja Rodríguez | Mariana Álvarez | Arrate Garcia | Lexuri Ugarte |
| José Luis Pérez (Kotelo) | Ivan del Caz | Arrate Arias | José Ramón Sobrón |
| Piter Blanco | Eduardo Fernandez de Pinedo | Marimar Belategi | Amaia Zarrabeitia |
| Elsa Fuente Do-Rosario | | | |

***Oharra:*** *grisez ez datozenek desenkusa ematen dute*

## *1. Aurkezpena*

**Zer dio OGPk?**

Gai publikoetan herritartasun aktiboagoa eta administrazio ireki eta gardenagoa sustatzea, kultura parte-hartzailearen bidez eta etengabeko hobekuntzan erantzukizuna partekatuz.

**#4Kompromisoaren xede orokorra**

Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte-hartze eta lankidetza kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.

# 29.10.19ko Konpromiso taldearen bilera open eskola #4k

Open Government Partnership Euskadi

OGPEuskadi konpromiso#4 open eskola escuela ciudadanía

## **2.1** *Oharrak, joan den uztailean kideei bidalitako ebaluazio galdetegian oinarrituta*

| | GUZTIZ ADOZ | NAHIKO ADOZ | EZ OSO ADOZ | GUZTIZ DESADOZ | ERANTZUNIK GABE | IRUZKINAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lan saioetarako behar den informazioa eta agiriak argiak eta egokiak dira | 3 | 5 | | | | 1.No toda la documentación está incluida en red | |
| **Lan saioak ongi planifikatuta daude denborei, metodoari eta helburuei dagokienez.** | **3** | **5** | | | | **1. A veces resultan cortas por la cantidad de contenidos a tratar. Aún así, se respetan los tiempos y acciones. El método me parece bueno.** | |
| Lortzen ari diren emaitzetan inplikatuta nagoela eta partaide naizela sentitzen dut. | 4 | 3 | 1 | | | 1. Me he incorporado tarde al proyecto y por lo tanto se me escapan aún varias cuestiones | |
| **Konpromiso honen buru den taldearekiko komunikazioa ona da (kanalak, mota guztietako irisgarritasuna, erraztasuna, albisteak, gardentasuna).** | **5** | **3** | | | | | |
| Pertsona guztien ekarpenak balioesten dira eta, ahal den neurrian, integratzen. | 3 | 5 | | | | 1. De hecho, a veces se integran "demasiadas" valoraciones, aportaciones que no responden a lo que se ha demandado o respuestas a preguntas que no se han entendido. En la medida en que todo pasa a formar parte de la documentación de la | |
| **Proiektu honetako aholkulariek aditu mailako ezagutza dute.** | **4** | **4** | | | | | |
| Prozesua baliagarria zait ezagutza eta esperientzia eskuratu eta transmititzeko aukera ematen | 3 | 4 | 1 | | | | |
| **Saio bakoitzaren aktak bat datoz landutakoarekin eta aurrerapenaren txosten gisa funtzionatzen dute.** | **2** | **6** | | | | **1. No se si en algunos casos sería necesario dos niveles de documentación, una más tipo acta al pie de la letra y otra de elaboración de lo trabajado en la sesión** | **2. Son copia fiel de lo que se hace y dice** |
| Konpromiso hau bat dator aurreikusitako epeetan aurreikusitako helburuekin. | 5 | 3 | | | | 1. Denborak ondo betezen ari dira | |
| **Jarraipenerako tresnak (talde sustatzailea, talde liderra, konpromiso taldea, idazkaritza teknikoa) nahikoak direla iruditzen zait.** | **6** | **2** | | | | **1. Jarraipenerako sortu diren tresnak egokiak eta baliagarriak direla iruditzen zait** | |
| Uste dut lan honek euskal gizartean parte hartzezko kultura handiagoa sustatzen lagunduko duela. | 1 | 4 | 1 | | 2 | 1. Gakoa bi urte hauen ondoren jarraipena nola egingo den zehaztean dago, hau hasierako lanketa bat besterik ez da. | 2. A priori, así debería ser. En realidad, es imposible decirlo ahora. Los pilotos nos ayudarán a anticipar resultados de futuros proyectos que se consoliden. |
| **Konpromiso hau hobeto betetzeko, zer ez gara ari egiten eta zer egingo zenuke zuk?** | **1. No sé si en algunos casos sería necesario dos niveles de documentación, una más tipo acta al pie de la letra y otra de elaboración de lo trabajado en la sesión. A veces por integrar lo de todas las personas hay documentación que no convence a ninguna.** | **2. Tantear a la cuidadanía, sobre las opciones de trabajo ogp** | **3. Denbora aldetik honen estu egongo ez balitz egutegia ereduaren kontrasterako aukera gehiago egongo litzateke: bai esperientzia gehiago martxan jarri ahal izateko eta baita herritarrekin kontrastea egiteko** | **4. Integrar más y mejor a ciudadanía individual en todo el proceso (que resta) de definición, implementación y evaluación de los pilotos. Reflexionar con carácter general sobre para qué exactamente queremos una OE en Euskadi (o a nivel de otras administraciones). Si todo este esfuerzo tiene como objetivo general que la ciudadanía aprenda a participar, las administraciones deben estar dispuestas a abrir nuevos espacios participativos y a lanzar iniciativas novedosas en este campo. De otra forma, todo podría quedar en nada.** | | | |
| Konpromiso hau hobeto betetzeko, zer egiten ari gara eta ez zenuke egingo zuk? | 1. Nada. Creo que los pasos son correctos y el seguimiento y asesoramiento también | | | | | | |

## 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola k#4

Open Government Partnership Euskadi

OGPEuskadi konpromiso#4 open eskola escuela ciudadanía

### **2.2** *Oharrak, joan den uztailean kideei bidalitako ebaluazio galdetegian oinarrituta*

### 1.Galdera

Aldiz, balorazio gehiegi batzen dira,  eskatu denari erantzuten ez dioten ekarpenak. Dena hurrengo bilerako dokumentazioan sartzen den neurrian, batzutan gehiegizkoa da.

Gehiegizkoa da

***Oharra**: Oraingoz, ekarpen guztiak hartzen dira kontuan; pilotuen esperientziaren ondoren, informazio  garrantzitsuena bahetzeko da gida garatzeko.*

### 2.Galdera

Gehiago eta hobeto integratzea.

***Oharra**: Guztiek parte hartzen dugu herritarrak prozesuan inplikatzen eta foru ireki guztietan. Konpromiso taldea bozgorailu ona da pertsonak talde irekira gehitzeko, idazkaritza teknikoa ere norabide horretan ari da lanean baita pilotuak ere. OGP Euskadik proiektu osoa komunikatzea nahi du herritarrak, oro har, gehiago inplikatu ahal izateko. Ordezkari politikoak ere eragile aktiboak dira prozesu horretan*

# Tolosatzen Eskola Irekia

## Tolosa



(Tolosaldea eskualdea, Gipuzkoa)

19.000 biztanle

Tolosako Udala: Komunitatea eta Gobernantza saila

*Joseba Ormazabal, zinegotzia: jormazabal@tolosa.eus*

*Garikoitz Lekuona, teknikaria: glekuona@tolosa.eus*

# Tolosatzen Eskola Irekia

- Aurrekariak (Antecedentes)
  - Tolosatzen prozesua 2016
  - Tolosatzen Plangintza Partekatua 2017-2027







  - KOMUNITATEA eta Gobernantza Sailaren sorrera 2019

# Tolosatzen Eskola Irekia

- Tolosatzen plangintzako erronkak (Retos tolosatzen)
  - *Baloreetan oinarritutako gizarte konprometitua eta inklusiboa lortzea.*
  - *(Promover una sociedad comprometida e inclusiva basada en valores)*
  - Herri hezitzailea eta irekia egitea (Municipio educador y abierto)
    - Haurren hiria
    - Mugi Tolosa
    - Betikasten
    - Emakumeen jabekuntza eskola......
    - Hezkuntza mahaitik **Open Eskolara (OGP)**

# Tolosatzen Eskola Irekia

- Emandako urratsak (pasos dados)
  - Idazkaritza teknikoaren kontratazioa: Biko
  - Talde Sustatzailearen eraketa (grupo impulsor)
    - Alkatea, Joseba, Komunikazio arduraduna, Gari
      - T.E.I. definizioa
      - "Tolosako herritar, eragile eta udalaren arteko elkarlan eta elkar-ezagutza sustatuz **herri agenda partekatua** garatzea asmo duen proiektua"
      - *"Proyecto que, desde el trabajo en equipo y el conocimiento mutuo entre agentes y el ayuntamiento, pretende desarrollar una agenda municipal compartida"*
    - Erronka: Teknikoen presentzia handiagoa
    - Agintaldi Plana 2019-2023
      - *Herritarrak Lan Arloa: Herritartasun aktiboa sustatzea*
        - *Herritarren ahalduntzea: Tolosatzen Eskola Irekia*

# Tolosatzen Eskola Irekia

- Hurrengo urratsak (próximos pasos):
  - Azaroak 11-18 astea: Prentsaurrekoa
  - Azaroak 20: Bilera irekia
  - Talde Motorra eratzea (Creación Grupo Motor)
  - Abendua: Programaren definizioa eta kontrastea
  - 2020 urtarrila-ekaina ikasturtea (Curso)

## ***3.** Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

TOLOSA

***OE Pilotuaren jardunean aurkitutako zailtasunak:***

- Talde bultzatzailearen definizioa. Desorekatuta dago parte hartze teknikoari dagokionez.

- Zailtasunak baino gehiago, halako kezka tekniko bat, dagoeneko abian diren eta Tolosatzen Eskola Irekia programan parte har lezaketen proiektuak txertatzeko.

## *3. Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

***Zertarako balio izaten ari zaizue?***

- Eskolaren barruan koka litezkeen jarduerak eta agenteak identifikatzeko.
- Tolosatzen 2017-2027 plan estrategikoaren barruan identifikatutako erronkei erantzuteko.

## ***3.*** *Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

TOLOSA

***Nola heldu hurrengo jarraipen saioei, Pilotuan lagundu diezazueten:***

- Euskadi mailan jendeak OGP-Euskadi ezagutzen hasi behar luke, toki mailan egin beharreko komunikazioaren estaldura gisa.

## 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola k#4

### ***3.*** *Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

***Bilera hau bideratzeko iradokizunak/proposamenak. Zer lortu nahi dugu?***

- Lurreratzea hobeto bistaratu; nola prestatuko den programa, nola egokitu denborak, zenbait proiektu dagoeneko abian direla kontuan izanik.

**29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera** open eskola k#4

***3.*** *Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

Añanako Kuadrilla
Cuadrilla de Añana

↓

Añana open eskola

Herritartasunerako Eskola Irekia
Escuela Abierta de la Ciudadanía

Open Government Partnership Euskadi

OGPEuskadi konpromiso#4 open eskola escuela ciudadanía

## *3. Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

**IMAJINA Añana-ren edukiaren proposamena**

Open Government Partnership Euskadi

OGPEuskadi konpromiso#4 open eskola escuela ciudadanía

*Kuadrillaren estrategiarekin bat egitea*

# Zein lurraldetako erronkei ekin diezaiekegu Añana Open Eskolaren bidez?

- Gizarte eta lurralde kohesioa
- Landa despopulatzea
- Conexión interdepartamental, participación interna
- Conocimiento del Territorio (Institución / Ciudadanía / Bidireccional)
- Capacitación en Colaboración (Procesos para aprender a participar)
- Emprendizaje Social
- Mayor colaboración institucional
- Complementar los procesos políticos con procesos participativos
- Gazteak lurraldeari atxikitzea

Añana open eskola

Herritartasunerako Eskola Irekia

Escuela Abierta de la Ciudadanía

## *3. Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

### IMAJINA Añana-ren edukiaren proposamena

| 1. FASEA - GIZARTERATZEA - Biltzea (iraila-urria) | |
|---|---|
| Helburua | OEn parte hartzeko interesa duten pertsonak bilatzea |
| 1 ekintza | OE aurkeztea kuadrillako 10 udalerrietan |
| 2 ekintza | Kontzeju, elkarte, kolektibo, ikastetxe eta abarretan aurkeztea |
| Tresna nagusiak | Agiria – Argumentu multzoa – Kartelak – Whatsappa – Sare sozialak – Web orria |

| 2. FASEA - PRESTAKUNTZA PROZESUA (azaroa-apirila) | | Eskuratutako trebetasunak |
|---|---|---|
| Helburua | Partaideen gaitasuna eta herritarren partaidetza sustatzea erronkaka | |
| 1. saioa | Sendotasunak eta aukerak (3 arlo: herria – udalerria – kuadrilla) Erronkak/proiektuak identifikatzea | Elkar ezagutzea Enpatia Bilera eraginkorren kudeaketa |
| 2. saioa | Nola egin aurre erronkei proiektuetan oinarrituta | Gatazkaren kudeaketa positiboa Sormena |
| 3. saioa | Nola egin aurre erronkei proiektuetan oinarrituta II | Proiektuen kudeaketa |
| 4. saioa | Partaideen gaitasuna eta herritarren partaidetza sustatzea erronkaka | Elkar ezagutzea Enpatia Bilera eraginkorren kudeaketa |

Oharra: saioen artean, partaideek intereseko taldeekin izan beharko dituzte saioak, erronkari erantzuten dion proiektua eraikitzen joateko. Hurrengo saioan, erronkako egindako talde bileretan agertu diren zailtasunak eta arrakastak landuko lirateke. Halaber, lan egitea elkarte eta herritarrekin lankidetza hirukoitza antolatuta (zabalkundea, partaidetza eta prestakuntza).

| 2. FASEA - PRESTAKUNTZA PROZESUA (azaroa-apirila) | |
|---|---|
| Helburua | Ezagutaraztea erronketatik sortutako proiektuak, ikusteko ea bideragarria den abian jartzea |
| Ekitaldia | Hitzaldia + proiektuen aurkezpena + mahai-ingurua |

# Añana open eskola

Herritartasunerako Eskola Irekia
Escuela Abierta de la Ciudadanía

Añana Open Eskolaren lehen ikasturtea hasiko da eta gure kuadrillan eragin soziala sortuko duten ideien bila gabiltza.

## Añanarako ideiaren bat duzu?

**Bidal iezaguzu eta zatoz!**

**Azaroak 26, asteartea • 16:00**

Iruña Okako gizarte- eta kultura- zentroan

Open Government Partnership Euskadi

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Añanako Kuadrilla
Cuadrilla de Añana

**Ideia bat baduzu eta Añanako Kuadrillan abian jarri nahi baduzu, leku egokian zaude**

*Añana Open Eskolatik zure ideiari forma ematen laguntzen dizugu, ideia hori gizarteratzen, herritarren parte-hartzea aktibatzean sortzen diren oztopoak gainditzen, eta guztion ongia bilatzen duen proiektu batekin ilusionatzen. Gainera, hainbat gizarte gaitasunetan eta lurraldearen ezagutzan trebatuko zara, ideiatik proiektura lurreratzeko.*

## Nola har dezaket parte?

Parte hartzeko, urrats hauek jarraitu behar dituzu:

1. Zure proiektuaren ideiak gai hauetakoren bati erantzun behar dio:
   - Añanako Kuadrillan gizarte kohesioa bilatzea.
   - Landa eremuetako despopulazioari irtenbidea ematea.
   - Añanako Kuadrillako gazteei zuzenduta egotea.
2. Bidal iezaguzu zure ideia, zure datu pertsonalekin batera, **openeskola@cuadrilladeanana.eus** helbidera.
4. Zatoz Añana Open Eskolaren lehen bilerara. Bilera datorren **azaroaren 26an** izango da, 16:00etatik 20:00etara, Iruña Okako gizarte- eta kultura- zentroan (Milagros Gonzalez kalea z/g).

## Ideiak edo proiektuak banakakoak edo taldekoak izango dira?

Ideiak banaka edo taldean pentsa ditzakezue, eta Añana Open Eskolako 2019-2020 ikasturteko lehen saioan partekatuko ditugu.

## Joan al naiteke Añana Open Eskolara nahiz eta ideia edo proiekturik ez izan?

Bai horixe! Añana Open Eskolan, beste gizarte trebetasun batzuen artean, aktiboki entzuten ikasiko duzu, gatazkak modu positiboan kudeatzen, jendaurrean hitz egiten edo bilera eraginkorrak prestatzen; gainera, hobeto ezagutu ahal izango duzu gure kuadrilla, bai lurralde gisa bai maila administratiboan. Proiektu ideiarik ez baduzu, lehen saioan sortzen diren proposamenetako batzuetan parte hartu ahal izango duzu, eta elkarrekin aurrera egin proiektua aktibatzen. Gainera, maila pertsonalean ere trebatu ahal izango zara.

Eman izena hemen: **945 35 50 89**

## *3. Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

**Añana open eskola**
Herritartasunerako Eskola Irekia
Escuela Abierta de la Ciudadanía

***OEPilotuaren jardunean aurkitutako zailtasunak:***

- Kuadrilla osatzen duten udalekin sozializatzea, eta horiek proiektuan inplikatzea.

- Nola iritsi, modu sistematizatuan, interesa izan lezaketen pertsona, elkarte eta erakundeengana.

- Nola sarrarazi gazteak.

- Kudeatu dugun arren, udal hauteskundeek, ekartzen dituzten aldaketa politikoekin batera, halako ziurgabetasun bat sortzen diote proiektuari.

# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola k#4

## *3. Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

***Zertarako balio izaten ari zaizue?***

• Etorkizunari begira, kuadrillako zenbait udaletan garatzen ari diren proiektuak lerrokatzeko.

• Kuadrillako proiektu bat, OEAñana, bistaratzeko.

• Honezkero gure kuadrillan sortzen ari diren ideia eta proiektu zehatzak bistaratzeko.

• Uste dugu barne eta kanpo komunikaziorako bideak ezar ditzakeela, edota lehendik badirenak baliarazi, eta erakundea eta gure herrietan bizi diren pertsonak elkarrengana hurbiltzeko balio diezagukeela.

• AFAren laguntza ekonomikoak OEAñana garatzea ahalbidetzen du eta erakundeen arteko lotura sendotzen du.

• Parte hartzaileen gaikuntza modu berri batean aktibatzeko, proiektuen bitartez.

## **3.** *Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

Herritartasunerako Eskola Irekia
Escuela Abierta de la Ciudadanía
Añana open eskola

***Nola heldu hurrengo jarraipen saioei, Pilotuan lagundu diezazueten?***

• Komunikazioaren eta laguntzaren ikuspegitik, ona litzateke OGPEuskadi gehiago bistaratzea, proiektua kokatzeko eta era guztietako estaldura emateko.

•Gainerako pilotuak nola dauden guri jakinarazten jarraitu dadila.

• Adierazleak berariaz eratu daitezela pilotuetako bakoitzarentzat, proiektua zehaztuz joaten den heinean.

## **3.** *Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

***Bilera hau bideratzeko iradokizunak/proposamenak. Zer lortu nahi dugu?***

- Jakitea nola ari diren kontu hauek ebazten beste pilotu batzuetan.
- Nola ebatzi diren Gasteizkoa bezalako esperientzia egiaztatu batean.
- Beste toki erakunde batzuekin partekatzea eta harremanak egitea. Harreman horiek agian proiektu honetatik kanpo ere balioko digute.

**29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera** open eskola k#4

***3.*** *Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

*Proietu pilotua*

# Open Bilbao Eskola

Gasteiz, 2020/10/19ko 4.K bilera

**UDALAREN KONPROMISOA**
Etorkizuneko balizko Open Bilbao Eskola sortzeko proiektu PILOTUA
Open Bilbao Eskola

Proiektuaren **zutabeak**

- ❖ **Baterako sorkuntza:** udal arloekin (eta udalen inguruko erakundeekin) batera parte hartzeko prozesua
- ❖ **Inklusioa:** herritarrek, elkarteek eta udal langileek parte hartzea
- ❖ **Egokitzea** udalaren errealitateari
- ❖ **Nabarmentzea** udalean lehendik ere Open Eskolaren ildo berean garatzen ari diren ekintzen **balioa**
- ❖ **Etorkizuneko OBE edukien atzeraelikadura eta balidazio** etengabea (akzioen aplikazio sekuentzialaren bitartez)
- ❖ **Lehendik dauden parte hartze organoak eta egiturak indartzea**: barrutietako kontseiluak

## AKTIBATU/AMAITU DIREN EKINTZAK

- Arloei informazioa eskatzea (2019ko apirilean) herritarrak parte hartzearen eta elkarlanaren kulturan hezteko ekintzei buruz (lantegi, jardunaldi, ikastaro eta abarrekoak). 2018an egindako 120tik gora ekintzaren mapa. Horien sailkapena: prozesu aktiboa
- Parte hartzeko prestakuntzari buruzko inkesta egitea parte hartze entitateei (elkarteei). Helburua: herritarren parte hartzearen arloko prestakuntza beharrizanak ezagutzea. Egoera: parte hartze entitateen inkestak jasotzen amaitu da. Lehenengo txostena. Emaitza deskribatzaileak (estatistikoki ez dira adierazgarriak): parte hartzeko prestakuntza jasotzeko interesa egiaztatu da
- Inkesta udal arloei eta udalaren inguruko enpresei bidaltzea
- Lehenengo prestakuntza ematea barrutietako kontseiluetako kideei (politikariak)
- Herritarren Parte Hartzearen Jarraipenerako Batzordearen lehenengo bilera

## EGITEN ARI DIREN EKINTZAK

❖Emaitzen azterketa, eta ondoriozko prestakuntza eskaintza: BARNE PRESTAKUNTZA: udal langileentzat. KANPO PRESTAKUNTZA: barrutietako kontseiluetako kideentzat (ordezkari politiko eta sozialak), herritarrek parte hartzeko entitateentzat, interes taldeentzat, eztabaida prozesuetako parte hartzaileentzat…

❖ Barrutietako Kontseiluetako Talde Eragilea. Osaera: 8 pertsona, barrutietako kontseiluetako kideak. Eginkizunak: jarraipena egitea eta lankidetzan aritzea OBE garatu eta hedatzeko; egindako ekintzak ebaluatzea. Izendapena, barrutietako kontseiluak eratu ondoren (azaroko lehenengo osoko bilkura)

❖ OBE (Open Bilbao Eskola) zigilua: OEren helburuekin lerrokatutako prestakuntza ekintzen aintzatespena. Ezaugarri komunak bilatzea; horretarako beharrezkoa da udal arloekin elkarlanean aritzea

## *3. Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

**OE Pilotuaren jardunean aurkitutako zailtasunak:**

•Open Bilbao Eskola pilotuaren beraren norainokoak eta konplexutasunak eragindakoak: Alde batetik, ahalegin guztiak egokitu behar ditugu udalerri handi baten errealitateari (biztanle asko eta parte hartzeko organo ugari ditu, eta udala bera ere tamaina handikoa da); eta bestetik, erronka garrantzitsuak jarri ditugu, arloekiko lankidetza estua eta herritarren parte hartze ahalik eta zabalena (elkarteetan nahiz hiribilduko organoetan) hartu baititugu premisatzat pilotua diseinatzerakoan. Zailtasun horiek, beraz, geuk jarri dizkiogu geure buruari, baina orain arte ez dute ez atzerapenik ez burutzapen arazorik eragin.

## ***3.*** *Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

Bilbao

**Zertarako balio izaten ari zaizue?**

•Berretsi ahal izateko lankidetzarako ahalmen handia dutela Udaleko 17 arloek eta Udalaren inguruko gainerako erakundeek, eta prest daudela Open Bilbao Eskolaren pilotua garatzea helburu duten ekintzetan parte hartzeko.

•Taldean ikasteko, aurrera eginez arlo horiek guztiak nahitaez bildu behar dituen proiektu bat (eta etorkizuneko beste batzuk) definitzeko bidean, eta, modu horretan, baterako sorkuntzaren eta lankidetzaren filosofian lan egiteko.

•Udal Erregistroan inskribatutako elkarteekiko komunikazioa indartzeko, eta horretan hobera egiteko mekanismoak planteatzeko.

•Barrutietako kontseiluei eduki berriak emateko. Bilboko herritarrek parte hartzeko organo aktiboak diren aldetik kontseiluek duten eginkizunaren balioa handitu egingo da.

## *3. Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

Bilbao

**Nola heldu hurrengo jarraipen saioei, Pilotuan lagundu diezazueten:**

- Egutegi egokia prestatuz, hautatutako egunak egokiak izan daitezen pilotuan egindako aurrerapenak jakinarazi ahal izateko. Horren haritik eskertu egiten dugu Bikonsulting-ekin batera ezarritako epeak hain zabalak izatea, eta elkarlanaren ildo horretan jarraitzeko gogoa agertzen dugu.
- Beste pilotu batzuen egoerari buruzko informazioa emanez, lehen eskutik jakiteko nola moldatzen diren eta nola egiten dieten aurre zailtasunei. Dena dela, tamaina askotako udalerriak garenez, bakoitzak erronka desberdinak ditu aurrean.

## 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola k#4

Open Government Partnership Euskadi

OGPEuskadi konpromiso#4 open eskola escuela ciudadanía

## *3. Hiru pilotoen egoerari buruz* - Estado de situación de los tres pilotos

Bilbao

**Bilera hau bideratzeko iradokizunak/proposamenak. Zer lortu nahi dugu?**

- Pilotuei eusten dieten oinarriei buruzko iritzi truke zabal bat.
- Lehenengo hausnarketa bat haien arteko desberdintasunei buruz, eta (balizko) alderdi desberdin horien kategoriei buruz (esaterako: “oinarriari” (antolaketa egitura / baliabideak) bakarrik dagozkio, edo hautatutako edukiei ere bai?).
- Open Eskolako etorkizuneko gidak izan lezakeen itxuraren aurrerapena; haren malgutasuna bistaratu behar da, hiru pilotuetako bakoitzaren berezitasuna azpimarratuz, eta identifikatuz, agian, zeintzuk kontu gera litezkeen pilotuetatik kanpo eta zeintzuk egongo diren haietan guztietan.

# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera

open eskola k#4

## ***4.** Pilotuen oztopo, aukera eta erronkak oinarri hartuta, eraikitze partekatuaren prozesua eta hobekuntza proposamenak* - A partir de las barreras, oportunidades y retos de los Pilotos, proceso de construcción compartida y propuestas de mejora

**Kezka/erronka/zailtasun komunen lau multzo handi** (gai horiek guztiak elkarren osagarriak dira eta elkarrekin lotuta daude):

1. Nola inplikatu herritarrak –elkarteak, organoak, norbanakoak–, batez ere gazteak.
2. Nola inplikatu arduradun politikoak.
3. Nola eman proiektuari sail arteko zeharkakotasuna.
4. Nola txertatu/lotu proiektua toki politikan, dagoeneko abian diren proiektuetan.

***Oharra:*** *Saioan landu beharreko lau puntuetatik bi bakarrik garatzeko denbora izan genuen. Bildutakoei esan zitzaien posta elektronikoaren bidez ekarpenak bidal zitzaketela lau multzoetatik edozeinetarako.*

# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola k#4

Open Government Partnership Euskadi

OGPEuskadi konpromiso#4 open eskola escuela ciudadanía

***4.** Pilotuen oztopo, aukera eta erronkak oinarri hartuta, eraikitze partekatuaren prozesua eta hobekuntza proposamenak* - A partir de las barreras, oportunidades y retos de los Pilotos, proceso de construcción compartida y propuestas de mejora

Mentimeter

## Nola inplikatu herritarrak –elkarteak, organoak, norbanakoak–, batez ere gazteak

Añana: influencer-ak detektatu

Bilbo: Gazteria Sailak identifikatutako gazte aktiboak erakarri.

Añana: udal arteko jarduera sozializatuak.

Tolosa: gazteak non dauden, haraxe iritsi.

Añana: jarduera erakargarriak proposatu "amu" gisa

Tolosa: ez inbaditu lehendik badiren proiektuak, bilatu sinergiak. Errespetuz batu. Egin gonbita talde eragileari beharrizan komunak identifikatzeko.

Añana: curriculumaz kanpoko ziurtagiria eman parte hartzen dutenei.

Bilbo: foro naturalak kontuan izan.

Bilbo: batez ere, eta gazteei begira, agente eragile gazteak behar dira, gaztetasunarekin identifika daitezkeen ereduak. Haiek erabiltzen dituzten tresnak eta agenteak bilatu behar dira (sare sozialak, influencer-ak, DJak). Gazteen beharrizanak identifikatu behar dira.

Elkarteak parte harrarazi, lehenago egin dituzten ekarpenak kontuan hartuta. Feed back-a egon dadila. "Eskaintza agente" moduan sarrarazi daitezela.

Bilbo: herritarren arteko interes komunak bilatu enpresen bitartez.

Añana: elkarte mugimendua gizarteratu.

**Oharra:** Konpromiso Taldeak egindako ekarpenak.

# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola k#4

*4. Pilotuen oztopo, aukera eta erronkak oinarri hartuta, eraikitze partekatuaren prozesua eta hobekuntza proposamenak* - A partir de las barreras, oportunidades y retos de los Pilotos, proceso de construcción compartida y propuestas de mejora

## Nola inplikatu arduradun politikoak

Mentimeter

- Añana: komunikazioa
- Añana: parte hartzeko kulturari buruzko prestakuntza eman arduradun politikoei
- Bilbo: goragoko mailetan (EAE) parte hartzea sustatuko duen esparru politikoa
- Tolosa: parte hartzeko kultura helburutzat hartzeko adostasunetik abiatu
- Herritarren presio-taldeak
- Tolosa: kargudunentzako berariazko ekintzak sortu
- Bilbo: klase politikoa mugiarazten duten lider sozialak identifikatu
- Bilbo: jarraitutasuna eta esperientzia arrakastatsu gehiago baleude… marketin apur bat
- Bilbo: proiektuak arduradun gorenen babesa eta konpromisoa jaso dezala (lidergo argia)
- Tolosa: jarrera eta prestasuna landu
- Oposizioarekin ere lan egin
- Añana: ez da gobernu proiektu bat; komunitatearen proiektua da
- Bilbo: hau guztia zuzenean planteatu alderdi politikoei eta haien egiturei

***Oharra:** Konpromiso Taldeak egindako ekarpenak*

***5.** Konpromiso honetan aurreikusitako ekintzak epe motz eta ertainera* - Acciones a corto y medio plazo previstas en el Compromiso 4

**Hurrengo urratsak:**

- Pilotuetako bakoitzarentzako lan planetan aurrera jarraitzea.
- OEak doitzea, pilotuak eta Konpromiso Taldearen ekarpenak erkatuta.
- Otsaila: pilotuen jarraipenerako bigarren jardunaldia Konpromiso Taldearekin (saio bikoitza).

# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera , open eskola k#4

Bileraren argazkiak





# 29.10.19ko Kompromiso taldearen bilera open eskola k#4

Open Government Partnership Euskadi

OGPEuskadi konpromiso#4 open eskola escuela ciudadanía

## Bileraren argazkiak





# Eskerrik asko etortzeagatik

# ¡Gracias por venir!